



## KONTRATUAREN MEMORIA JUSTIFIKATZAILEA

### 1.- SARRERA.

Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzen diren gunean, irisgarritasuna bermatzea beharrezkoa ikusten du udalak. Jadanik, Aramaioko Irisgarritasun Planean proposatzen da hainbat hobekuntza obra gauzatzea aipatutako herriko gune horretan irisgarritasuna bermatze aldera. Besteen artean, kontuan hartu beharra dago, herriko bizilagunen topaleku nagusienetako batean egin beharreko obra dela.

Bestalde, aipatu beharra dago, Aramaioko Udalak ez duela baliabide tekniko eta pertsonal nahikoa lan hauek bere kabuz egiteko eta, horrenbestez, merkatura jo beharra dagoela lanen kontratazioa egiteko.

### 2.- KONTRATUAREN XEDEA.

Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzen diren gunean, irisgarritasuna bermatzeko lanak egikaritzea beharrezkoa ikusten da. Memoria honetan proposatzen diren lanekin, gune hori egokitu nahi dira eta irisgarritasuna bermatu.

### 3.- LANEN DESKRIBAPENA.

Aramaioko Irisgarritasun Planean, aipatutako udalerriko Ibarra auzoaren Nardeaga kalean, irisgarritasuna bermatu ahal izateko hainbat hobekuntza-obra gauzatzea proposatzen da.

Hobekuntza-obra horien artean, Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzen diren gunean irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren hainbat lanak jasotzen dira.

Aramaioko Irisgarritasun Planean jasotzen denaren arabera, gaur egun aipatutako eremuan dauden irisgarritasun arazoak konpondu ahal izateko, oinezkoentzako ibiak jartzea eta arrapala bat ezartzea aurreikusten da beste lan batzuen artean.

Egin nahi diren lanekin, oinezkoentzako lehentasuna duen gune bat bihurtu nahi da Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzen diren gunea.

Aipatutako gunea asko erabiltzen da Aramaioko bizilagunen artean elkartze eremua bezala, udalerriak dauzkan merkataritza lokal gehienak hor kokatzen baitira (tabernak, okindegia...), gazteen aisialdirako dagoen parkerik garrantzitsuena ondoan dago (Bañera parkea), udalerriko Kultur Etxea bertan kokatzen baita, etab.

Beraz, egin nahi diren lanekin, Aramaioko biztanleentzat segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzen duen gune bat egin nahi da, eta hau gauzatu ahal izateko, honako lan hauek egin beharko dira:

- *ERREPIDEAREN MAILA IGOTZEA : Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzen diren gunea guztiz irisgarria egiteko asmoarekin, errepidearen maila igotzea proposatzen da, ondoko espaloien altuerara jarriz.*
- *KULTUR ETXEKO INGURUAN IBIA JARTZEA: Proposatzen den errepideko maila igoerarekin, Kultur Etxeko inguruan, mendebaldeko espaloitik (Kultur Etxea kokatzen den espaloitik) ekialdeko espaloiara segurtasunez pasatzeko oinezkoentzako ibi bat sortuko da.*
- *UDAL GARAJEETARAKO SARRERA INGURUAN ESPALOIARI JARRAIPENA EMATEA: Proposatzen den errepideko maila igoerarekin, udal garajeetarako sarreran moztuta gelditzen den espaloiri jarraitasuna ematen zaio, irisgarritasuna bermatuz.*
- *ESPALOI BERRIA EGITEA: Gaur egun, okindegiko eremuan ez dago espaloirik eta errepidetik ibiltzera derrigortuta daude oinezkoak. Proposatzen den errepideko maila igoerarekin, aipatutako eremuan espaloi berri bat egokitzen da, oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasuna bermatuz.*
- *ARRAPALA BERRI BAT EGITEA: Nardeaga kaleko 21A zenbakian kokatzen den eraikinaren inguruan arrapala berri bat egitea proposatzen da, modu honetan eremu honetan, ekialdean kokatzen diren eraikinetara iristeko ibilbide irisgarri bat sortzen da.*

Lanen exekuzioak, gehienez, bi hilabeteko iraupena izango du.



#### 4.- AURREKONTUA.

Udal zerbitzu teknikoek egin dute, besteen artean, aurretik adierazitakoak egiteko beharrezkoak diren lanen justifikazioa, exekuzio aukeren azterlana eta memoria tekniko baloratua eta bertan, jasotzen da ondoko aurrekontua:

LANEN EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA	66.943,06.-€
BEZ (%21)	14.058,04.-€
<b>AURREKONTUA GUZTIRA</b>	<b>81.001,10.-€</b>

#### 5.- ESLEIPEN JARDUNBIDEA.

Aurrekoa ikusita, esleipen prozedura ireki sinplifikatua izango da eta izapidetzea arrunta. Era horretan, konkurrentzia bermatzea nahi da, ahalik eta proposamen gehien aurkeztea lizitaziora eta, baita ere, esleipena egiteko epeak laburtzea. Gogoratu beharra dago, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 159 artikuluan ematen duela aukera:

*“Artículo 159. Procedimiento abierto simplificado.*

1. Los órganos de contratación podrán acordar la utilización de un procedimiento abierto simplificado en los contratos de obras, suministro y servicios cuando se cumplan las dos condiciones siguientes:
  - a) Que su valor estimado sea igual o inferior a 2.000.000 de euros en el caso de contratos de obras, y en el caso de contratos de suministro y de servicios, que su valor estimado sea igual o inferior a 100.000 euros.
  - b) Que entre los criterios de adjudicación previstos en el pliego no haya ninguno evaluable mediante juicio de valor o, de haberlos, su ponderación no supere el veinticinco por ciento del total, salvo en el caso de que el contrato tenga por objeto prestaciones de carácter intelectual, como los servicios de ingeniería y arquitectura, en que su ponderación no podrá superar el cuarenta y cinco por ciento del total.
2. El anuncio de licitación del contrato únicamente precisará de publicación en el perfil de contratante del órgano de contratación. Toda la documentación necesaria para la presentación de la oferta tiene que estar disponible por medios electrónicos desde el día de la publicación del anuncio en dicho perfil de contratante.
3. El plazo para la presentación de proposiciones no podrá ser inferior a quince días a contar desde el siguiente a la publicación en el perfil de contratante del anuncio de licitación. En los contratos de obras el plazo será como mínimo de veinte días.
4. La tramitación del procedimiento se ajustará a las siguientes especialidades:
  - a) Todos los licitadores que se presenten a licitaciones realizadas a través de este procedimiento simplificado deberán estar inscritos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, o cuando proceda de conformidad con lo establecido en el apartado 2 del artículo 96 en el Registro Oficial de la correspondiente Comunidad Autónoma, en la fecha final de presentación de ofertas siempre que no se vea limitada la concurrencia.

#### 6.- LOTEKA EZ BANATZEAREN JUSTIFIKAZIOA.

Aipatutako 9/2017 Legeak, 99 artikuluan arautzen du espedientean justifikatu egin beharko dela kontratuan loteak edo zatiak ez direnean egin eta,aldi berean, artikuluko horrek hainbat arrazoi jasotzen ditu kasua justifikatzeko.

Honako kontratuaren kasuan kontuan hartu beharrekoa da, besteen artean, egin beharreko lanaren eduki eta izaerak ez dutela loteetan zatikatzea uzten.

#### 7.- BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA.

2021 urteko ekitaldirako aurrekontuan aurreikusitako obra bat da eta asignazio ekonomiko nahikoa jaso du bertan. Halaber, 2021eko LEADER dirulaguntzen deialdian aurkeztutako proiektua da.

Aramaion, 2021eko azaroaren 8an.